

Eguberriko oparia

- Aita (edo ama): Eguberri hurbiltzen ari zaigu. Ea, bakoitzak erran beza zer nahi lukeen. Ez dut erran nahi eskatuko dituzuen guziak ukanen dituzuela.
- Mirentxu : Beraz, aurten urtero bezala, ametsetako zerrenda bat egin behar dugu.
- Kaiet : Nik nahi nukeen gauza bakarra bizikleta bat da.
- Mirentxu : Gauza bakar bat eskatuz ez duzu sorpresarik ukanen eta Eguberriko plazera preseski sorpresa duzu !
- Kaiet : Bai, arrazoi duzu. Baina zer eska nezake ? Larruzko baloia badut urtebetetze kari ukana, irristailuak iaz ukan nituen, etxean bideo-jokorik ez du nahi amak...
- Kattina : Eta zerbait eskatzen bagenu familia guziarentzat ? Orain handituak gara eta denak elkarrekin ar gaitezke.
- Mirentxu : A ez ! Beti kalapitan ariko gara ! Batek hartu orduko besteek nahiko dute.
- Aita (edo ama): Mirentxuk egia dio. Ez genuke aharran aritzeko beste gai bat behar. Ideiarik baduzu ?
- Kattina : Bai, ping-pongeko mahai bat. Launaka edo binaka josta ginateke. Txapelketak ere egin genitzake lagunekin.
- Aita (edo ama): Arazoa da ez dugula toki handirik biltzeko. Kanpoan utziz berehala fundi litzateke eta aterpean jadanik neguko egurra ezarria dugu.
- Kaiet : Plegatua delarik ez du toki handirik behar eta gainera, erabili ondoan plastikozko estalgi batez estaliko dugu. Zure ideia bikaina da Kattina. A, zer partidak egingen ditugun !
- Mirentxu : Hala ere, halako bat egiten dit sorpresarik ez ukaiteak. Beharrik aitatxi eta amatxi hor dira.
- Kattina : Eta ttantta eta otto.
- Aita (edo ama): A ! Zer haur gastatuak ! Ene garaian...
- Denak : Bai, badakigu...

Jokalariak : Buraso bat (aita edo ama) eta hiru haur (Mirentxu, Kaiet, Kattina)

Autorea : Kattalin Sallaberry

Argitaratzailea : Ikas

Argitaratze data : 2010/12/21

Maila : 3. ziklotik goiti